PROGRAMA MANO 8 26/2/13 15:23 P□gina 25

2012*13*

**Euskadiko Orkestra Sinfonikoa**
Orquesta Sinfónica de Euskadi



Concierto nº 2645. kontzertua

# 08*

## Musika Irekia
Música Abierta

09
**Martxoa** / Marzo
20:00 h

Bilbao
Donostia / San sebastián
Vitoria / Gasteiz
**Pamplona / Iruña**

EUSKADIKO
ORKESTRA

Composici□n

PROGRAMA MANO 8 26/2/13 15:23 P�gina 26

EUSKADIKO ORKESTRA

**Andrés Orozco-Estrada**
zuzendari titularra / director titular
**Andrey Boreyko**
zuzendari printzipal gonbidatua / director principal invitado

# Gaurko kontzertua
## El concierto de hoy

**OPERATIK STABAT MATERRERA.**
Oso ezberdinak eta aldiberekoak diren bi *Stabat Mater*. Arriagarena, Parisera aldatu baino hilabete gutxi batzuk lehenago idatzia, gizonezkoen ahots eta orkestrarako idatzitako pieza labur baina dotorea da, Mozartiar kutsukoa eta opera-izaerakoa eliza-izaerakoa baino. Rossinirena, berriz, opera utzi ondoren sortua, Madrilera egindako bisita batean enkargatu zion Manuel Fernández Varela artxidiakonoak. Honek Pergolesirenaren parekoa izan zitekeen *Stabat Mater*ra nahi zuen. Rossiniren saiakeraren ondorioz bere opera onenen maila berberean dagoen eliza-lan bakarra sortu zen –*Meza Nagusi Txikia*rekin batera-. Bi *Stabat Mater*ren artean, Respighik italiar Errenazimenduko lauderako piezak oinarri harturik sortutako *Antiche danze ed arie* lanaren 3. Suitea kontzertuaren osagai profanoa izango da.

**DE LA ÓPERA AL STABAT MATER.**
Dos *Stabat Mater* muy diversos y coincidentes. El de Arriaga, escrito pocos meses antes de trasladarse a París, es una breve pero elegante composición para voces masculinas y orquesta, mozartiana y de un carácter más operístico que religioso. El de Rossini, concebido tras su retiro de la ópera, le fue encargado durante una visita a Madrid por el archidiácono Manuel Fernández Varela, quien deseaba un *Stabat Mater* que pudiera rivalizar con el de Pergolesi. El esfuerzo de Rossini dio como resultado la única obra sacra -junto con la *Pequeña Misa Solemne*- que está a la altura de sus mejores óperas. Entre ambos *Stabat Mater*, la Suite nº3 de las *Antiche danze ed arie* de Respigui, basada en piezas para laúd del Renacimiento italiano, pondrá el punto profano a la velada.

Aula Jordá Gela hitzarmenaren baitan, Musikeneko zuzendaritza ikasle talde bat aritu da Abonu programa honetan / En virtud del convenio Aula Jordá Gela, un grupo de alumnos y alumnas de dirección de Musikene ha participado en este programa de Abono.

AULA JORDÁ GELA
OSE + Musikene

**Mikel Chamizo / OSE**
testuak / textos

Eusko Jaurlaritzako herri-baltzua
Sociedad Pública del Gobierno Vasco

Composici�n

**I. Juan Crisóstomo de Arriaga (1806-1826)**
Stabat Mater, opus 23 [10′]

**Ottorino Respighi (1879-1936)**
Antiche danze ed arie. Suite nº3, p172 [16′]

Italiana / Ignoto (Fine del Sec. XVI)
Arie di corte / Giov. Batt. Besardo (1617)
Siciliana / Ignoto (Fine del Sec. XVI)
Passacaglia / Lodovico Roncalli (1692)

**II. Gioacchino Rossini (1792-1868)**
Stabat Mater [60′]

I.- Introduzione (Soli e Coro).
Andantino moderato. "Stabat Mater dolorosa"
II.- Aria (Tenore).
Allegretto maestoso. "Cuius animam gementem"
III.- Duetto (Soprano I/II).
Largo. "Quis est homo"
IV.- Aria (Basso).
Allegretto maestoso. "Pro peccatis sue gentis"
V.- Coro (a capella) e Recitativo (Basso).
Andante mosso. "Eia mater, fons amoris"
VI.- Quartetto (Soli).
Allegretto moderato. "Sancta mater, istud agas"
VII.- Cavatina (Soprano I/II).
Andante grazioso. "Fac, ut portem Christi mortem"
VIII.- Aria (Soprano I) e Coro.
Andante maestoso. "Inflammatus et accensus"
IX.- Quartetto (Coro a capella).
Andante. "Quando corpus morietur"
X.- Finale (Coro).
Allegro - Andantino moderato. "Amen. In sempiterna saecula"

Accademia Rossiniana-rekin lankidetzan (Pesaro)
En colaboración con la Accademia Rossiniana (Pésaro)

**Lorenz Nasturica Herschcowici,** kontzertinoa / concertino
**José Miguel Pérez Sierra,** zuzendaria / director
**Carmen Romeu,** sopranoa / soprano
**Adriana Di Paola,** mezzosopranoa / mezzosoprano
**Shi Yijie,** tenorea / tenor
**Sávio Sperandio,** baxua / bajo
**Orfeón Donostiarra** (zuz./dir. José Antonio Sainz Alfaro)

**Euskadiko Orkestra**
Orquesta de Euskadi

**Babeslea** /Patrocina:
Ingeteam

# Egitarauari Oharrak
Notas al Programa

## I.
## Stabat Mater, opus 23

**Juan Crisóstomo de Arriaga** (Bilbao, 27 de enero de 1806 – París, 17 de enero de 1826)

Arriagari buruz idatzi den biografia-ikerketarik osatuenak, Ramón Rodamilánsena, "Arriagaren bila" du izena, oso izenburu esanguratsua. Izan ere, musikagile bilbotar ospetsuenaren bizitza ezagutzeko saiakera orok mota guztietako zalantza eta kontraesan pairatu ditu. Eta, aldi berean, apenas dago informaziorik une erabakigarri ezberdinen inguruan, bere heziketa edo heriotzaren inguruan, esaterako. Horren arrazoia: ez da Arriagak familiari -eta alderantziz- idatzitako eskutitzik mantendu; dauzkagun bakarrak Arriagaren aitaren eta zenbait pertsona famatuen arteko eskutitzak dira, musikagilearen jardueren inguruko zeharkako informazioa eskaintzen dutenak.

Mozart bezalako maisuen kasuak oso bestelakoak dira, beren bizitza, mugimendu profesionalak, sentimenduak eta nortasuna babesle, lagun eta senitartekoei idatziriko ehunka eskutitzetan islaturik baitaude. Arriagaren kasuan, aldiz, aurreiritzi zein uste ugarik eta baita bere lehen biografoen irudimen handiak ere aipatu dokumentu eza estali dute. Rodamilánsek bere liburuan dioenez, "egiazko daturik ez zegoenez, Tuillerietan barrena ibiltzea gustuko zuen Arriagaren irudi malenkoniatsu eta barnerakoi hura garatu zuten, funsgabe, iruzkingile bat baino gehiagok. Erraz askoa zen irudi azkar eta erromantiko hori garatzea eta, onartua izanez gero, ez zen ikerketa osagarririk egiteko beharrik egongo".

Arriagaren *Stabat Mater*rari dagokionean, kontraesan ugarirekin egiten dugu topo. Opus 23 batzuen ustetan, opus 21 beste zenbaiten iritziz, Parisera joan eta gero idatzi zituen lehen lanetako bat zela uste izan zen urte luzez. José Sobejano Leongo Katedraleko organo-joleak 1821eko uztailan Arriagaren aitari idatzi zion eskutitza aurkitu zen geroago. Juan Simonek bidalitako

El más extenso estudio biográfico sobre la figura de Arriaga, escrito por Ramón Rodamiláns, tiene el significativo título de "En busca de Arriaga". Efectivamente, cualquier intento de reconstrucción de lo que pudo ser la vida del más célebre compositor bilbaíno está sujeto a interrogantes y contradicciones de todo tipo, cuando no se ve lastrado por una falta de información casi absoluta sobre aspectos tan cruciales como son su educación o su muerte. La razón es que no se conserva ni una sola carta escrita por Arriaga a su familia, ni viceversa; tan solo un breve intercambio epistolar entre el padre de Arriaga y diversos personajes que dan un testimonio indirecto de las actividades del joven compositor.

A figuras como Mozart se les puede hacer una relativa justicia porque su vida, sus movimientos profesionales, sus sentimientos y su personalidad están plasmados en infinidad de cartas a patronos, amigos y familiares. En el caso de Arriaga, durante muchos años la insalvable carencia de documentos ha sido suplida por las presunciones e incluso la imaginación de algunos de sus primeros biógrafos. Como bien dice Rodamiláns en su libro, "es precisamente esta falta de noticias ciertas la que ha animado a más de un comentarista a forjar de forma gratuita la imagen del Arriaga melancólico e introvertido, amigo de solitarios paseos por las Tullerías. Nada más fácil que este retrato precipitado y romántico que, aceptado como cierto, nos libraría de otras investigaciones".

En torno al *Stabat Mater* de Arriaga nos topamos con numerosas contradicciones. Clasificado por unos como opus 23 y por otros como opus 21, durante mucho tiempo se creyó que se trataba de una de las primeras creaciones del vasco tras su traslado a París. Más adelante se identificó una carta de José Sobejano, organista de la catedral

*Stabat Mater*rak eragin zion zirrara azaltzen dio bertan. Bilbon egondako azken bi urteetan, eta Pariseko abentura prestatzeko xedearekin, Concert Spirituel mugimendu klasiko frantsesaren gustuak garatu nahian zebilen Arriaga; hori da litekeena. Ondorioz, *Stabat Mater* edo *O Salutaris Hostia* bezalako eliza-moteteak idatzi zituen. Beste behin, baina, zehaztugabetasun eta mitoekin egiten dugu topo. XX. mendeko musikologo emankor espainiar baten arabera, Cherubinik Pariseko Kontserbatorioan sartzeko Arriagari egindako elkarrizketaren anekdota jaso zuen bere memorietan. Gazteak bere *Stabat Mater*ra erakutsi eta Cherubinik, liluratuta, ondorengoa arrapostu omen zion: “Ez duzu zer ikasterik, musika bera zara zu!" Errealitatea ez zen hori izan, baina. Cherubinik ez zuen *Stabat Mater*ra ikusi, "Et Vitam Venturi" *Credo*aren testuarekin idatzitako zortzi ahotserako fuga bat baizik... Eta nabariago dena ere... Cherubinik ez zuen memoriarik idatzi!

Nolanahi ere, aurrekoak 14-15 urterekin idatzitako *Stabat Mater*rak Arriagaren lanaren adituengan sortu duen lilura azaltzeko balio du. Vienar kutsukoa, Mozarten eraginarekin baina Rossiniarrak izan daitezkeen opera ukituekin ere, adagio orkestra-sarrera batekin hasten da. Polifonia-garapen bat dator gero: tenoreak eta baxuak dira paper nagusia hartzen dutenak, txandaka, bere azalpen- eta amaiera-pasartetan. Arriagak ahots-pasarteen zein instrumentu-akonpainamenduaren kromatismoari aurre egiteko agertzen duen adorea azpimarratzeko modukoa da.

de León, al padre de Arriaga, datada en julio de1821 y en la que le daba cuenta de la buena impresión que le había causado el *Stabat Mater* que Juan Simón le había enviado. Probablemente Arriaga, en los dos últimos años de su etapa en Bilbao y preparando su aventura parisina, se había esforzado por acercarse a los gustos clásicos franceses del Concert Spirituel produciendo motetes religiosos como el *Stabat Mater* o el *O Salutaris Hostia.* Pero las imprecisiones y los mitos continúan. Un prolífico musicólogo español del siglo XX afirmó que, en sus memorias, Cherubini registró la anécdota de la entrevista de Arriaga para su acceso al Conservatorio de París, en la que el joven le mostró a Cherubini el *Stabat Mater* y este, asombrado, exclamó: “Nada tienes que aprender, ¡tú eres la música misma!” La realidad es que Arriaga probablemente nunca le mostró a Cherubini el *Stabat Mater*, sino una fuga a ocho voces sobre las palabras del *Credo* “Et vitam venturi”, y lo que es aún más definitivo... ¡Cherubini nunca redactó sus memorias!

El caso sirve, en todo caso, para evidenciar la admiración que ha inspirado siempre el *Stabat Mater* entre los conocedores de la obra de Arriaga, que lo escribió con tan solo 14 o 15 años. De aire vienés, influenciado por Mozart pero con algún giro operístico casi rossiniano, comienza con una introducción orquestal en adagio que desemboca en un desarrollo polifónico en el que el papel de primera voz descansa, en la exposición y en la recapitulación, alternativamente en los tenores y en el bajo. Llama la atención, en este entramado, la valentía con que Arriaga aborda el cromatismo, tanto en la parte vocal como en el acompañamiento instrumental.

# Antiche danze ed arie. Suite nº3, p172

**Ottorino Respighi** (Bolonia, 9 de julio de 1879 - Roma, 18 de abril de 1936)

Respighi musikagilea ulertzeko gakoa musikologo gisa garatu zuen jarduera aztertzea da. Italiarrak XV-XVI mendetan herrialde hartan idatzitako musika sakonki ikertu zuen, Vivaldi eta Monteverdiren katalogoen edizioak prestatu zituen –ezinbesteko lanak XX. mendean izan zuten berpizterako- eta, orokorrean, jarrera oso aktiboa izan zuen Alpeez bestaldeko herrialdearen musikologia-eremuan. Iraganeko musikaren inguruan zuen ezagutzak eragina izango zuen bere lanetan, ezinbestean, baina Respighirekin lotu izan den Neoklasikoaren ezaugarriekin bat ez doan modu batean. Bere katalogoaren zati bat musikologia-ikerketetan oinarrituta dago eta arkaizantea izan daiteke, ezbairik gabe. Ideal estetiko bat baino, antzinako materialenganako

Una clave para entender al Respighi compositor es detenerse en su faceta de musicólogo. El italiano fue un apasionado investigador del repertorio musical patrio del Cinquecento al Settecento, preparó ediciones del catálogo de Vivaldi y Monteverdi que fueron vitales para su *revival* en el siglo XX y, en general, fue un agente muy activo en el ambiente musicológico del país transalpino. Esta inmersión en la música del pasado repercutió, por supuesto, en sus propias composiciones, pero lo hizo de una forma que no se corresponde del todo con las pautas del Neoclásico, frecuentemente vinculado con Respighi. Parte de su catálogo surge, desde luego, de la investigación musicológica y puede ser arcaizante, pero parece que en su naturaleza lo que prima es ese interés en los

interes hori da nagusi bere estiloan: Klasizismoaren edo Barrokoaren izaera edo sonoritatea imitatu nahi duen estilo-inpostazio bat, Stravinskyren *Pulcinella* lanean gertatzen den bezalaxe.

Horren zantzuak bere lan sinfonikoen artean izaera neo-errenazentistarik nabariena duen lan-sortan dira nabariak ere. *Antiche danze ed arie* sortaz ari gara, 1917, 1923 eta 1932an idatziriko hiru suitetan banatzen dena. Respighik iturri ezberdinetatik jasotako laud eta gitarrarako lanak jaso zituen: Oscar Chilesottik bere *Lautenspieler des XVI Jahrhunderts* (1891n argitaratua) jaso zituen transkripzioak, Besard de Besançonen (1603) *Thesaurus Harmonicus* lanetik hartutako zenbait *airs du cour* eta handik eta hemendik, musikologia-aldizkari italiar ezberdinetatik ateratako XVI. eta XVII. mendetako doinuak. Nahiko neurrigabea izan zen prozesua. Horren ondorioz, nahiz eta *Antiche danze ed arie* lana oso ospetsu bilakatu orkestren artean, ezin izan zen jatorrizko soinu guztiak identifikatu. Azkenik Paul O'Dette laudjoleak, ikerketa sakon bati esker, guztiak identifikatu eta Respighiren lanaren izenkidea den diska batean elkartu zituen, *Ancient Airs & Dances,* 1987. urtean. Musikagile horien zerrendan Molinaro, Galilei, Caroso, Besard, Gianoncelli eta Roncalli bezalako izenak ageri dira. Oso ezagunak ez badira ere egun, Respighiren atentzioa deitzeko adina kalitatea dauka beren musikak. Suiteak, hari-orkestrarako idatzitako hirugarrena batez ere, moldaketa huts baten mugan daude une askotan, Erromantizismo kutsu bat ematen dien kontrapuntu, harmonia- eta orkestra-tratamenduarekin apainduta badaude ere.

materiales antiguos más que una premeditación de la estética, una impostación del estilo que busque imitar el carácter o la sonoridad del Clasicismo o el Barroco, como en *Pulcinella* de Stravinsky.

Esto es apreciable incluso en la serie de piezas que, en apariencia, podrían considerarse de más clara adscripción neo-renacentista dentro de su producción sinfónica. Se trata de las doce *Antiche danze ed arie*, divididas en tres suites escritas en 1917, 1923 y 1932. En ellas Respighi aglutina piezas para laúd y guitarra recogidas de diversas fuentes, como las transcripciones que Oscar Chilesotti recopiló en su *Lautenspieler des XVI Jahrhunderts* (publicado en 1891), algunos *airs du cour* procedentes del *Thesaurus Hormonicus* de Besard de Besançon (1603) y varias otras melodías de finales del XVI y principios del XVII que el compositor/musicólogo fue recogiendo de aquí y de allá, según iban apareciendo en pequeñas revistas de musicología italianas. El proceso fue un tanto desordenado, por eso, aunque las *Antiche danze ed arie* se convirtieron rápidamente en un favorito del repertorio orquestal, no se llegó a identificar todas las melodías originales hasta que el laudista Paul O'Dette, en una investigación laberíntica, las desveló y tocó en un maravilloso disco de 1987 que comparte título con la obra de Respighi, *Ancient Airs & Dances*. En esa lista de compositores figuran nombres como los de Molinaro, Galilei, Caroso, Besard, Gianoncelli y Roncalli, no muy populares hoy en día pero cuya música debió de sugestionar lo suficiente a Respighi para que decidiera verterla en unas suites que, sobre todo la tercera, para orquesta de cuerdas, en muchos momentos se mueve en el límite del simple arreglo de los originales, aderezados, eso sí, con un tratamiento contrapuntístico, armónico y orquestal que los transporta en espíritu hasta el Romanticismo.

# II.
## Stabat Mater, para cuatro voces, coro y orquesta

**Gioachino Rossini** (Pésaro, 29 de febrero de 1792 - París, 13 de noviembre de 1868)

Ohore bitxi bat dauka Rossinik: musikaren historian gazteen jubilatu den musikagilea izatea. 1829an, 37 urte zituela, operaren mundu estresagarria uztea eta lortutako dirutzaz, gastronomiaz eta hain harrera hona eman zion Pariseko gizarteaz gozatzea erabaki zuen. Halere, Wilhem Tell bere azken opera izan bazen ere, abesti eta saloi-pieza txikiak idatzi zituen, aldizka, Pariseko adiskideentzat, eta bere eliza-musikako lan urrien gailurra izan ziren bi lanak idatzi zituen ere: *Stabat Mater*

Rossini goza del extraño honor de ser el compositor que más joven se jubiló de la historia de la música: fue en 1829, y con tan solo 37 años, cuando decidió abandonar el estresante mundo de la ópera para disfrutar del dinero que había amasado, de la buena cocina y de la sociedad parisina que tan bien le había acogido. Pero aunque tras *Guillermo Tell* no volviera a trabajar en ninguna otra ópera, sí que compuso ocasionalmente canciones y piezas de salón para algunos colegas

(1832) eta *Meza Nagusi Txikia* (1863).

Francisco Fernández Varela artxidiakonoak eskatuta idatzi zuen *Stabat Mater*ra. Madrilen ezagutu zuten elkar, musikagilea *Il barbiere di Seviglia* lanaren funtzio bat entzuteko baitzegoen bertan. Kondairak dioenez, diamante txikiak zituen tabako-ontzi bat eskaini zion elizgizonak eta Rossinik baldintza bakarra jarri zuen: lana ez zen inoiz argitaratua izango. Baldintza zehatz horietan, Varelari iruzur egiten -zergatik ez esan?- saiatu zen Pesarokoa: hamabi mugimenduko *Stabat Mater* bat entregatu zion; horietako sei, baina, ez ziren bereak. Lunbago-eraso batek jota, Rossinik Pariseko Théâtre Italien-eko musika-zuzendari Giovanni Tadolini lagunari lana bukatzea eskatu zion, Varelari ezer esan gabe. Azken honek 1833an estreinatu zuen *Stabat Mater*ra, lan guztia Rossinirena zelako uste osoan.

Arazoak, ordea, 1837an azaldu ziren, artxidiakonoa hil eta gero: Antonin Aulagnier editore paristar azkarrak bere lanaren eskuizkribua erosi eta argitaratzen saiatu zen. Rossinik aurka egin zion: berea ez zen musika berea balitz bezala saldu zuela jakin zezakeen jendeak eta, halaber, *Stabat Mater* bat agindua zion bere editoreari, Varelari saldutako huraxe ziurrenik. Aulagnierrekin izandako lege-borroka luzea eta gero, Rossinik *Stabat Mater*raren eskubideak berreskuratu eta 10 mugimendura mugatu zuen 1841ean; guztiak bereak, oraingoan.

Musika aldetik, bi konposizio-estilo oso ezberdin konbinatzen ditu Rossiniren *Stabat Mater*rak: Palestrina eta Pergolesiren modu errenazentistak hartzen dituen eliza-musikarekin batera -*Eia, Mater, fons amoris* koral soila, esaterako-, opera-nortasun hutseko soloak eta duetoak aurkitzen ditugu: *Cujus animam gementem* tenorerako edo *Fac ut portem* soprano eta tenorerako. Antzerki-izaera handi horrek harridura sortu zuen kritikarien artean, beren iritziz gehiegizkoa baitzen opera-estiloa, eta desegokia eliza-musikarako. Beste batzuek, Heinrich Heinek esaterako, Rossiniren pasioa defendatu zuten: “Arteak duen egiazko osagai kristauaren zeinua da... Eskuragarria ez den nolabaiteko barne gehiegikeria”, esan zuen olerkariak.

de París, además de sumar las dos aportaciones más destacadas a su escueta producción sacra: el *Stabat Mater* de 1832 y la *Pequeña Misa Solemne* de 1963.

Rossini escribió su *Stabat Mater* a petición del archidiácono Francisco Fernández Varela, quien entró en contacto con el compositor durante una visita de este a Madrid para atender a una función de *El barbero de Sevilla*. Tentado, dice la leyenda, por una tabaquera con incrustaciones de diamantes que le ofreció el eclesiástico, Rossini aceptó el encargo con la condición de que la obra nunca fuera publicada. Bajo estas condiciones concretas el de Pésaro intentó, ¿por qué no decirlo?, “estafar” a Varela, proporcionándole un *Stabat Mater* en doce movimientos de los cuales solo seis eran suyos. Debido a un ataque de lumbago, Rossini le pidió a su amigo Giovanni Tadolini, director musical del Théâtre Italien de París, que se hiciese cargo de los restantes números, pero nunca advirtió de esto a Varela, que estrenó el *Stabat Mater* en 1833 con la total confianza de que se trataba de una obra rossiniana al cien por cien.

Los problemas surgieron cuando, a la muerte del archidiácono en 1837, un sagaz editor parisino, Antonin Aulagnier, adquirió el manuscrito de su legado e intentó publicarlo. Rossini se negó, temeroso de que se descubriera que había hecho pasar por suya música que no lo era, y también porque le había prometido a su propio editor un *Stabat Mater*, con toda probabilidad el mismo que ya le había vendido a Varela. Tras una larga contienda legal con Aulagnier, Rossini recuperó los derechos sobre el *Stabat Mater,* que en 1841 redujo a 10 movimientos, esta vez sí, todos de su pluma.

Musicalmente, el *Stabat Mater* de Rossini combina dos estilos compositivos muy diferentes: junto a música eclesiástica que recoge las maneras renacentistas de Palestrina y Pergolesi, como la del austero coral *Eia, Mater, fons amoris,* encontramos solos y duetos de un lenguaje puramente operístico, como el *Cujus animam gementem* para tenor o el *Fac ut portem* para soprano y tenor. Tanta teatralidad provocó el desconcierto entre algunos críticos, que consideraban el estilo operístico excesivo y poco digno para la música religiosa. Pero otras voces, como la de Heinrich Heine, defendieron la pasión de Rossini: “El signo de un elemento verdaderamente cristiano en el arte es... un cierto exceso interior al que uno no puede ser convertido”, afirmó el poeta.



**José Miguel Pérez-Sierra,** zuzendaria / director

16 urterekin titulua eskuratu eta Gabriele Ferroren laguntzaile aritu zen Napoliko San Carlo, Palermoko Massimo edo Madrilgo Teatro Real bezalako antzokietan. 2004tik Alberto Zeddaren laguntzailea da. 2005ean Galiziako Orkestra Sinfonikoa zuzenduz egin zuen debuta eta 2006an nazioarte mailako debuta egin zuen, Pesaroko Rossini Opera Festival jaialdian *Il viaggio a Reims* zuzenduz. Ordutik Espainia, Italia, Georgia, Portugal eta Uruguayko orkestra nagusienak zuzendu ditu, errepertorio sinfoniko zein liriko zabala landuz.

Se titula a los 16 años y se convierte en asistente de Gabriele Ferro en teatros como el San Carlo de Nápoles, el Massimo de Palermo o el Teatro Real de Madrid. Desde 2004 es asistente de Alberto Zedda. Debuta en 2005 dirigiendo la Orquesta Sinfónica de Galicia y en 2006 llega su debut internacional con *Il viaggio a Reims* en el Rossini Opera Festival de Pésaro. Desde entonces ha dirigido a las orquestas más importantes de España, Italia, Georgia, Portugal y Uruguay, en un extenso repertorio sinfónico y lírico.



**Carmen Romeu,** sopranoa / soprano

1984an Valentzian jaioa, egun bertan kantu ikasketa gorenak osotzen ari da Ana Luisa Chova y Husan Park-ekin. 2007. urtetik Erromako Accademia Santa Cecicilia-ko "Opera Studio"ko kide, Renata Scotto, Anna Vandi eta Cesare Scarton-en ikasle delarik. Espainiar zein italiar lehiaketa ezberdinetan saritua, bi herrialde horietako antzoki ezberdinekin lankidetzan aritu da: Valentziako Palau de les Arts, Erromako Parco Della Musica edo Pesaroko Rossini Festival.

Nació en Valencia en 1984 y actualmente finaliza sus estudios superiores de canto en dicha ciudad con Ana Luisa Chova y Husan Park. Desde el 2007 forma parte del "Opera Studio" de la Accademia Santa Cecilia de Roma, donde estudia con Renata Scotto, Anna Vandi y Cesare Scarton. Ha obtenido premios en diversos concursos españoles e italianos y colaborado con importantes teatros de ambos países, como el Palau de les Arts de Valencia, Parco Della Musica de Roma y Festival Rossini de Pésaro.



**Adriana Di Paola,** mezzosopranoa / mezzosoprano

Palermon jaioa, *cum laude* graduatu zen Trapaniko Musika Kontserbatorioan eta ondoren Renata Scottoren ikasle izan zen. Egun Simone Alaimorekin hobekuntza ikasketak egiten ari da. Nazioarte mailako hainbat lehiaketetan izan da saritua, I. Renato Bruson Lehiaketa Lirikoan, esaterako, eta sarritan aritzen da italiar koliseo ezberdinekin lankidetzan: Palermoko Teatro Massimo, Erromako Accademia Santa Cecilia edo Parmako Teatro Regio.

Nacida en Palermo, se graduó *cum laude* en el Conservatorio de Música de Trapani y estudió después con Renata Scotto. Actualmente realiza estudios de perfeccionamiento con Simone Alaimo. Ha sido distinguida en diferentes concursos internacionales, como el Primer Concurso Lírico Renato Bruson, y colabora frecuentemente con coliseos italianos como el Teatro Massimo de Palermo, la Accademia Santa Cecilia de Roma o el Teatro Regio de Parma.



**Shi Yijie,** tenorea / tenor

Shangaien jaioa, 2008. urtean Rossini Opera Festival jaialdian egin zuen debuta, *Il viaggio a Reims* operan Cavalier Belfiore papera jokatuz, eta hurrengo urtean *Le Comte Ory* operako paper nagusia jokatzera gonbidatu zuten. Lortutako arrakastak nazioarteko panoraman kokatu zuen eta ordutik New Yorkeko Metropolitan Opera, Florentziako Maggio Musicale Fiorentino, Berlingo Deutsche Oper, Théatre Capitole de Toulouse eta beste hainbat europar antzoki garrantzitsutan aritu da.

Nacido en Shangai, fue descubierto en el Rossini Opera Festival de Pésaro en 2008, interpretando el papel de Cavalier Belfiore en *Il viaggio a Reims*, e invitado a protagonizar el papel principal de *Le Comte Ory* en la edición de 2009. El éxito obtenido lo situó en el panorama internacional, actuando en la Metropolitan Opera de Nueva York, Maggio Musicale Fiorentino de Florencia, Deutsche Oper de Berlín, Théatre du Capitole de Toulouse y otros importantes teatros europeos.



**Sávio Sperandio,** baxua / bajo

Artista oso nabarmena da Brasilen, Bertan Rio de Janeiro eta São Pauloko udal antzokietan aritu da eta kontzertu sinfonikoetan brasildar orkestra nagusienekin. Italian Lecce eta Ercolanoko opera jaialdietan eta Pesaroko Rossini Opera Festival jaialdian izan da. Beste hainbat paperen artean, *Il barbiere di Seviglia* eta *Don Pasquale* interpretatu ditu Madrilgo Teatro Real Antzokian, *Il viaggio a Reims* Arriaga Antzokian eta *Una cosa rara* Valentziako Palau de les Arts aretoan.

Es un artista muy solicitado en Brasil, donde ha actuado en los Teatros Municipales de Río de Janeiro y São Paulo y en conciertos sinfónicos con las principales orquestas brasileñas. En Italia se ha presentado en los festivales de ópera de Lecce y Ercolano y en el Festival Rossini de Pésaro. Entre otros papeles, ha cantado *El barbero de Sevilla* y *Don Pasquale* en el Teatro Real de Madrid, *Il viaggio a Reims* en el Teatro Arriaga y *Una cosa rara* en el Palau de les Arts de Valencia.



**Orfeón Donostiarra** (Zuz. / Dir.: José Antonio Sainz Alfaro)
**www.orfeondonostiarra.org**

Orfeoiaren errepertorioak ehun bat obra sinfoniko-koral biltzen ditu, berrogeita hamartik gora opera eta zarzuela eta folklore zein polifonia lanak. Abesbatza amateurraren espiritua mantendu arren, profesionala bailitzan dihardu, urtean 40 edo 50 bat kontzertu eskainiz. 1987.etik José Antonio Sainz Alfarok zuzentzen du. Espainia eta Europako jaialdi nagusienetan aritzen da. Zuzendu dutenen artean Abbado, Argenta, Barenboim, Frühbeck, Gergiev, Varga, López Cobos, Makerras, Maazel, Mandeal, Mehta, Muti, Ozawa, Pletnev, Rattle, Salonen, Sokhiev edo Víctor Pablo Pérez. Berliner Philharmoniker, English Chamber Orchestra, Royal Liverpool Philharmonic, Berlingo Rundfunk Sinfonie Orchester, Galizia eta Euskadiko orkestra sinfonikoak edo Russian National Orchestra izan ditu lankide. 130 grabaketa baino gehiago burutu ditu.

Su repertorio abarca un centenar de obras sinfónico-corales, más de cincuenta títulos de ópera y zarzuela y obras de folklore y polifonía. Mantiene el espíritu de coro amateur aunque con una dedicación de profesional con una media de 35 a 40 conciertos por año. Su director desde 1987 es José Antonio Sainz Alfaro. Participa en los festivales más importantes de España y Europa. Lo han dirigido, entre otros, Abbado, Argenta, Barenboim, Frühbeck, Gergiev, Varga, López Cobos, Makerras, Maazel, Mandeal, Mehta, Muti, Ozawa, Pletnev, Rattle, Salonen, Sokhiev o Víctor Pablo Pérez. Ha colaborado con la Berliner Philharmoniker, English Chamber Orchestra, Royal Liverpool Philharmonic, Rundfunk Sinfonie Orchester de Berlín, sinfónicas de Galicia, Euskadi o la Russian National Orchestra. Ha realizado más de 130 grabaciones.

## Gaurko kontzertua hitz gurutzatutan
El concierto de hoy en palabras cruzadas



EclipseCrossword.com

**HORIZONTALA** / HORIZONTAL

**7.** Arriagaren *Stabat Mater*raren orkestra-sarrerak hasieran duen erritmo lasaia.
Ritmo lento con el que comienza la intro-ducción orquestal del *Stabat Mater* de Arriaga.

**8.** Musikagile italiarra, opera-generoaren sortzailea. Respighik bere musikaren berreskuratzean lagundu zuen, editore gisa egindako lanari esker. / Compositor italiano, fundador del género operístico, cuya música ayudó a recuperar Respighi mediante su trabajo como editor.

**10.** Arriagaren *Stabat Mater*ra hartzen duen eliza-generoa. / Género sacro al que pertenece el *Stabat Mater* de Arriaga.

**BERTIKALA** / VERTICAL

**1.** Respighirekin lotu ohi den mugimendua, Stravinskyren *Pulcinella* hartzen duena ere. Movimiento al que se suele vincular a Respighi y al que también pertenece *Pulcinella* de Stravinsky.

**2.** Konposizioaz gain Respighik garatu zuen ikerketa-espezialitatea. / Especialidad investigadora a la que Respighi dedicó sus esfuerzos además de a la composición.

**3.** Rossiniren azken operako protagonistak duen ponte-izena (gazteleraz). / Nombre de pila del protagonista de la última ópera de Rossini.

**4.** Pariseko Kontserbatorioko zuzendaria, Arriaga Frantziako hiriburura iritsi zenean.
Director del Conservatorio de París cuando Arriaga llegó a la capital francesa.

**5.** Rossiniren *Stabat Mater*raren antzerki-izaera defendatu zuen olerkari germaniarra.
Poeta alemán que defendió la teatralidad del *Stabat Mater* de Rossini.

**6.** Espainiako hiria. Rossini bertan zegoen *Stabat Mater*ra enkargatu ziotenean.
Ciudad española donde se encontraba Rossini cuando le encargaron el *Stabat Mater*.

**9.** Rossiniri *Stabat Mater*ra enkargatu zion artxidiakonoaren abizena. / Apellido del archidiácono que le encargó el *Stabat Mater* a Rossini.

**11.** Zenbat suitetan banatu zituen Respighik hamabi *Antiche danze ed arie*ak. / Número de suites en las que Respighi distribuye las doce *Antiche danze ed arie*.

## Gure iradokizun diskografikoa
Nuestra sugerencia discográfica

**J.C. de Arriaga:** Stabat Mater. Mª José Moreno, Joan Cabero, Iñaki Fresán, Pablo Benavente, Coro Easo Abesbatza, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa.
Zuz./Dir.: Cristian Mandeal. Colección de Compositores Vascos, vol. X. CLAVES, 2006.
**O. Respighi:** Antiche danze ed arie. Philharmonia Hungarica.
Zuz./Dir.: Antal Dorati. Mercury, 1958.
**G. Rossini:** Stabat Mater. Netrebko, DiDonato, Brownlee, D'Arcangelo. Coro y Orquesta de la Accademia de Santa Cecilia.
Zuz./Dir.: Antonio Pappano. EMI, 2010.

PROGRAMA MANO 8 26/2/13 15:23 P�gina 35

EUSKADIKO ORKESTRA

**Hurrengo abonu kontzertua**
Próximo concierto de abono

**MARTXOAK 15 DE MARZO, 2013**
Auditorio Baluarte Auditorioa, 20:00h

**Ilyich Rivas**
zuzendaria / director
**Ana María Valderrama**
biolina / violín

(XI. Pablo Sarasate Nazioarteko Biolin Lehiaketako irabazlea
Ganadora del XI Concurso Internacional de Violín Pablo Sarasate)

**A. Dvorák:** Variaciones sinfónicas
**C. Saint-Saëns:** Concierto para violín y orquesta nº3
**D. Shostakovitch:** Sinfonía nº1

**Sarreren salmenta**
Venta de entradas

**www.baluarte.com**
**www.ticketmaster.es**
902 15 00 25

**Taquilla Auditorio Baluarte Auditorioko Leihatila**
**948 06 60 60**
Astelehenetik larunbatera / De lunes a sábado
11:00 -14:00 / 17:00 -20:00

**Euskadiko Orkestraren berri izan nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan edo izena eman gure webgunean EUSKOR buletin digitalean.**
Si quieres estar al día en lo que a la Orquesta de Euskadi se refiere, ponte en contacto con nosotros o suscríbete en nuestra web al boletín digital EUSKOR.

Miramon Pasealekua, 124
20014 Donostia-San Sebastián
**943 01 32 32**
**www.euskadikoorkestra.es**

Síguenos en:
| flickr | YouTube

Composici�n